

AGURRA

2015ean gure herrian, Hernanin, gertatutakoak edota aurten gertatu gabekoak ere, baina gure historiaren parte diren gertaera eta bizipenak jasotzen ditu urtekari honek. Hamaika artikulutan beste hamaika lagunek beren ekarpena egin dute, eta bertan gure herriko historia, politika, kultura, hizkuntza eta gai sozialen inguruan idatzi dute. Gure eskerrik beroenak beraiei eta bereziki urtea joan eta urtea etorri, behin eta berriz beraien lana eskaintzen digutenei, gure herria, Hernani, hobeto ezagutu dezagun.

Esan bezala, gure herriko historia hobeto ezagutzeko idatziak ditugu ale honetan: pertsona borrokalariei buruzko artikulua, baina ez soilik borrokalari ezagunena, baita ezkutuko borrokalariena ere, gure herriko historiaren hutsuneak aldarrikatzen dituztenak, emakumeen lana eta garrantzia azpimarratuz adibidez; edo egunerokotasunean haurren bizi baldintzak hobetzeko lanean ari diren famili eta elkar-tearenak. Gure herriko bazterrak eta inguruak ezagutzeko lanak; baita hizkuntza arlokoak ere, euskara babestu, landu eta gorde duten hainbat lagunen bizitzak eta pasarteak ezagutaraziz. Eta ezin ahaztu kultur arloko lanak, hauetan ere artisten bizitzak eta urtemugak medio herriko kultur aberastasunaren berri jasotzen dugulako urtekari honetan.

Era askotako irakurgaiak beraz, herritar askoren interesekoak izango direlakoan. Gogoz eta patxadaz goza dezazuela irakurtaldiarekin.